

EKONOMIA ETA ADMINISTRAZIO KLAUSULEN AGIRIA, LEGE
AHOHKULARITZA IRAUNKOR ETA INTEGRALERAKO ZERBITZU
PROFESIONALAK PROZEDURA IREKIAREN BIDEZ KONTRATATZEKO
LIZITAZIOA ARAUTUKO DUENA

1. KONTRATUEN XEDEA

Kontratuen xedea da DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOari eta VICTORIA EUGENIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietateei lege aholkularitza iraunkor eta integralerako zerbitzu profesionalak egitea; batez ere, sozietate, kontratu, ondare, auzibide, zerga eta lanaren esparruekin lotuta, eta sektore publikoko erakundeen espezialitatean.

Azken buruan, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOari eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietateei fede publikoa eta lege aholkularitza emateko funtzioak Donostiako Udaleko Idazkaritza Nagusiari dagozkio. Hortaz, idazkaritza horrekin erabat eta etengabe koordinatu eta haren aginduen mende jarri beharko da aholkularitza zerbitzuak egiteko garaian.

Ildo horretatik, funtsezkoa da adierazitako esparruetan bereziki kualifikatuak eta adituak izango diren pertsonak egitea zerbitzuak, idazkaritza horrek betetzen dituen funtzioak osatu, garatu eta gauzatzeko. Gainera, aditu horien erantzun berehalakoa eta presentziala ere bermatu beharko da.

2. ARAUBIDE JURIDIKOA ETA JURISDIKZIOA

Kontratuak pribatuak dira. Horiek prestatzeko eta esleitzeko, ekonomia eta administrazio klausulen agiri honi eta baldintza teknikoen agiriei jarraitzen zaie, eta bertan aurreikusten ez denari dagokionez, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOaren eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietateen kontrataziorako barne-jarraibideei, Sektore Publikoaren Kontratuari buruzko Legearen (SPKLTB) testu bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilean ezarritako arauak, hala badagokio, urriaren 30eko 30/2007 Legea zati batean garatzen duen maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretuan (aurrerantzean, 817/2009 ED) ezarritako arauak, esleipen ahalordea duten eta Herri Administrazioaz bestelako sektore publikoko erakundeen artean arautze bateratura atxikita ez dauden kontratuatarako, eta, baldin eta aipatutako arauetan jasotakoarekin kontraesanean ez badago, HAKLAOari.

Ondorioei eta iraungitzeari dagokienek, honakoek arautuko dute kontratua: ekonomia eta administrazio klausulen agiri honek eta baldintza teknikoen agiriak, eta, horietan aurreikusita ez dagoen guztian, zuzenbide pribatuko arauak. Nolanahi ere, kontratuari aplikatzekoak izango zaizkie SPKLTBaren I. liburuko V. tituluan kontratuak aldatzeari buruz ezarritako arauak.

Horrez gain, SPKLTBa, 817/2009 EDa eta HAKLAOa aplikatzekoak izango dira agiri honek testu arauemaile horietara berariaz jotzen duenerako.

Jurisdikzio ordena zibilak izango du kontratuaren prestaketari, esleipenari eta ondorioei, eta hura betetzei eta iraungitzei dagokienek aldean artean sortzen diren desadostasunak ebazteko eskumena.

3. ERAKUNDE KONTRATUGILEAK ETA KONTRATAZIO ORGANOA

3.1.- ERAKUNDE KONTRATUGILEAK

Erakunde kontratugileak DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA eta VICTORIA EUGENIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietateak dira.

DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK berak bakarrik egingo ditu ekonomikoki eskaintza onuragarriena aukeratzeko eta kontratuak esleitzeko hiru erakunde kontratugileekin sinatuko diren kontratuak prestatzeko lanak.

Hala ere, behin betiko esleipena argitaratu eta esleipendunei dagokien jakinarazpena egin eta gero, eta esleipendunek agiri honen **17. klausulan** eskatutako dokumentazioa aurkeztu ondoren, klausula horrek ezartzen duen epearen barruan bi kontratu egingo dira, eduki berarekin, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREKIN eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA SA sozietateekin.

Gauzak horrela, lizitazio honen xede diren zerbitzuen hornikuntza eta eskaintza DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOTIK eta SAN TELMO MUSEOA, SA eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA sozietateetatik eskatu eta kontratatu ahal izango dira, eta eskaera egiten duen aldeari fakturatuko zaizkio eta berak ordaindu beharko ditu.

Kontratuak sinatzen diren unetik, eskubide eta betebeharren araubidea, kontratuak gauzatzeko eta iraungitzeko faseei dagokien guztian, hiru erakunde kontratugileetako bakoitzari dagokiola ulertuko da.

Hala izanda, agiri hauetan DONOSTIA KULTURARI egindako edozein erreferentzia generiko honako hauei lotuta ulertu beharko da:

- DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOARI, hiru erakunde kontratugileetako bakoitzarekin sinatuko diren kontratuak prestatu eta esleitzeari buruzko jardunei dagokienean.
- Bereizi gabe, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOA eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA hiru erakundeetako edozeini, kontratu bakoitza formalizatu eta sinatzeari dagokionean, eta horiek gauzatu eta iraungitzeko faseekin lotutako guztian.

3.2 KONTRATAZIO ORGANOA

Kontratuak prestatzeko, eskaintza ekonomiko onuragarriena aukeratzeko eta kontratuak esleitzeko prozeduraren ondorioetarako, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOKO zuzendari kudeatzailea da Kontratazio Organoa.

Kasuan-kasuan kontratuak formalizatu eta izenpetzeko ondorioetarako, Kontratazio Organoa hiru erakunde kontratugileetako bakoitzarena izango da.

4. ESLEIPEN PROZEDURA

Kontratuak prozedura irekiaren bidez esleituiko dira.

Prozeduraren xedea izango da eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen enpresaburua hautatzea, agiri honetan ezarritako balorazio irizpideen arabera.

5. ALDAERAK

Ez da aldaerarik onartzen.

6. KONTRATUKO DOKUMENTAZIOA

Honako hauek edukiko dute kontratu izaera, esleipenaren ondoren egiten diren kontratuez gain: ekonomia eta administrazio klausulen agiri honek, baldintza teknikoaren agiriak eta esleipendunak aurkezten duen eskaintzak.

Esleipendunak aipatutako dokumentuak sinatu beharko ditu, kontratuak formalizatzeko egintzan, guztiak onartzen dituenaren froga gisa.

7. KONTRATUEN IRAUPENA

Kontratuen iraupena 2 urtekoa izango da, haiek formalizatu eta biharamunetik hasita. Kontratazio Organoak kontratuak urte gehigarri batez luzatu ahal izango ditu. Kasu horretan, DONOSTIA KULTURAK jakinarazpen fede emailea bidaliko dio kontratistari, hasierako indarraldiaren azken hiruhilekoaren barruan, eta kontratistak kontratuak betetzeko eta horiek arautzen dituzten agiriak betetzeko betebeharra edukiko du, luzapenak barne hartuta.

8. GEHIENEO KUZITAZIO PREZIO UNITARIOAK ETA KONTRATUEN BALIO ZENBATETSIA

Hiru erakunde kontratugileetako bakoitzak ordainduko du kontratuen prezioa, kontratistaren langileek (aurrerantzean, "profesionalak") DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA, SA sozietateek eraginkortasunez eskatutako lege aholkularitzako zerbitzuak egiten emandako orduen arabera -behar bezala justifikatuta egongo dira haien iritzian-. Xede horrekin, lizitatzailleek orduko batez besteko prezioak eskaini beharko dituzte, eskatutako zerbitzugintzara atxikitako profesionalen kategoriaren arabera adierazita; aurreko zerbitzuei lotutako administrazio eta izapidetze zerbitzu espezializatuen orduko prezioez gainera.

Ondorio horietarako, zerbitzugintzara atxikitako profesionalak jarraian adierazten diren kategorien eta gehieneko prezio unitarioen arabera sailkatuko dira (horiei lotuta egingo dituzte zerbitzuak):

- 2 urtetik beherako esperientzia duten profesionalak: HIRUROGEITA HAMASEI euro/ordu (76 €/ordu), BEZa kanpo.
- 2 urtetik gorako eta 8 urtetik beherako esperientzia duten profesionalak: EHUN ETA ZAZPI euro/ordu (107 €/ordu), BEZa kanpo.
- 8 urtetik gorako esperientzia duten profesionalak: EHUN ETA BERROGEITA ZAZPI euro/ordu (147 €/ordu), BEZa kanpo.

Gainera, lotutako eta espezializatutako administrazio eta izapidetze zerbitzuak jarraian adierazten diren gehieneko prezio unitarioen arabera egingo dira:

- Lotutako eta espezializatutako administrazio eta izapidetze zerbitzuak: HIRUROGEITA BAT euro/ordu (61 €/ordu), BEZa kanpo.

Lege aholkularitzako zerbitzuak egiten profesionalek emandako orduak justifikatuko ditu kontratistak. Horretarako, bi hilabetezko fakturekin batera, kasuan-kasuan dagokion bihilekoan egindako berariazko zerbitzuen xehetasuna adieraziko da. Xehetasun horretan zehaztuko dira eskainitako berariazko zerbitzuak eta berariazko zerbitzu bakoitzera atxikitako profesional bakoitzak egindako orduak. Horrez gain, DONOSTIA KULTURAK eskatzen badu, kontratistak informazio zehatzagoa aurkeztuko du berariazko zerbitzu bat egiteko gauzatutako lanei buruz.

Hala, DONOSTIA KULTURAK betebeharrak ekonomikoak edukiko ditu, berariaz egindako lege aholkularitzako zerbitzuen ondoriozkoak badira eta kontratuen indarraldian justifikatzen badira bakarrik.

Kontratuen guztizko balio zenbatetsia 95.000 eurokoa da, balio erantsiaren gaineko zerga kanpo.

Balio zenbatetsi hori SPKLTBko 88.5 a) artikulua arabera kalkulatu da. Hau da, kontuan hartu da aurreko hamabi hilabeteetan esleitutako antzeko kontratuen balio erreala, hasierako kontratuen ondorengo hamabi hilabeteetarako aurreikusitako kopuru aldaketetara doituta eta kontratuak izan dezaketen iraunaldi osorako zenbatuta, luzapenak barne direla (hau da, 3 urte).

Edonola ere, kontratuen prezio erreala biderkadura hau izango da: esleipendunak eskainitako orduko prezioak bider DONOSTIA KULTURAK eskaturik hark benetan emandako orduak (agiri honen **9. klausulan** jasotako eran).

Lizitatzailen eskaintzetan ordainsariak adierazteaz gain, tasa ofizialei eta jarduera garatzeagatik ezar daitezkeen gainerako zergei dagozkien kantitateak adieraziko dira, balio erantsiaren gaineko zergaren kasuan izan ezik; aparteko kontusail batean adieraziko dute BEZa lizitatzailerek.

Eskaintzetan ez dira barne hartuko kontratistak DONOSTIA KULTURAREN kontura egiten dituen gastuak (notaritzak, erregistroak, joan-etorriak, etab.).

9. PREZIOA ORDAINTZEA

Kontratistak bi hilean behin (bihileko naturala) fakturatuko ditu lege aholkularitzako zerbitzuak. Hala ere, fakturazioaren lehen aldia kontratuak formalizatu ondoren hasiko da eta 2014ko ekitaldiko dagokion hilabete naturalaren azken egunean amaituko da.

Prezioa bi hilean behin ordainduko da, kontratistak kasuan-kasuan dagokion faktura aurkeztu eta DONOSTIA KULTURAK onartu eta gero.

Kontratistari ordaindu beharreko prezioa eragiketa honen emaitza izango da: dagokion bihilekoan kontratistaren langileek emandako ordu kopurua kontratistak eskainitako prezio unitarioei aplikatzea.

Bihileko faktura bakoitzari, dagokion hilabetearen egindako berariazko zerbitzuen xehetasuna gaineratuko zaio, klausula honetan jasotako eran. DONOSTIA

KULTURAK fakturan adierazten den kontu korrontean banku-transferentzia eginda ordainduko du hura, 30 eguneko epean, faktura horri dagokion hilabete naturala amaitzen denetik.

Ez da ordainduko agiri honen kontratu xedetik kanpo egindako lanik edo zerbitzurik, edo, hala badagokio, DONOSTIA KULTURAK aldeztu aurretik eskatu ez duen lan edo zerbitzurik.

10. PREZIOAK BERRIKUSTEA

Eskaintako prezioak urtero berrikusiko dira, kontratuak formalizatu eta lehenengo urtea pasa eta gero, eta Euskal Autonomia Erkidegoko kontsumorako prezioen indizearen edo horren ordezkari indizearen aldaketaren % 85 aplikatuz.

Lehen azterketa egingo da oinarri gisa kontratistak eskaintako prezioak erabilita eta, ondorengo urteetarako, aurreko azterketaren emaitzazko prezioak erabiliko dira.

11. GAITASUN BALDINTZAK

DONOSTIA KULTURArekin kontratatu ahal izango dute jarduteko ahalmen osoa duten, kontratatzeke debekurik ez duten eta behar adinako kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala dutela frogatzen duten Espainiako zein atzerriko pertsona natural edo juridikoek

Enpresa lizitatzailerik, halaber, kontratuen xede diren zerbitzuak gauzatzeko eska daitekeen gaikuntza profesionala edo enpresa gaikuntza izan beharko dute.

Pertsona juridikoak kontratuaren esleipendun izateko, ezinbestekoa izango da kontratuaren zerbitzuak haien estatutuen edo eratze arauen arabera berezkoak dituzten helburuen, xedearen edo esparruaren barruan egotea.

Nolanahi ere, DONOSTIA KULTURArekin kontratatzeke ahalmena izango dute Europar Batasuneko estatuetakoen enpresa ez espainiarrek, baldin eta ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera kasuan-kasuan zerbitzua betetzeko gaituta badaude. SPKLTBaren 58. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Espresa horiek ezarrita dauden estatuko legeriak kasuan kasuko zerbitzua egin ahal izateko baimen bereziren bat eskatzen duenean, edo erakunde jakin bateko partaide izatea eskatzen duenean, baldintza hori betetzen dutela frogatu beharko dute.

Europar Batasunetik kanpoko estatuetakoen pertsona fisikoek edo juridikoek jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko dute, edo enpresaren egoitza dagoen lurraldeko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

DONOSTIA KULTURArekin kontratatu ahal izango dute horretarako aldi baterako eratzen diren enpresaburuen elkarteek. Horretarako, ez da beharrezkoa izango

elkarte horiek eskritura publikoan gauzatzea kontratua haien alde esleitu arte. SPKLTBaren 59. artikuluan aurreikusitakoa izango da aplikatzekoa.

Beharrezkoa denean, lizitatzailleek ondoren adierazitako kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa eta tekniko edo profesionala dutela ziurtatuko dute:

- Azken hiru urteetan, baldintza teknikoan agirian deskribatutako arlo guztietan, urte bakoitzean sektore publikoko gutxienez sei erakunderi lege aholkularitza ematen esperientzia edukitzea.

Sei erakundeetatik, gutxienez batek kulturaren arloko jarduerak egin behar ditu, eta horrek edo haietako beste batek enpresa erakunde publikoa izan behar du.

Ondorio horietarako, sektore publikoko erakundeak dira SPKLTBaren 3.1 artikuluan adierazikoak.

Kaudimena ziurtatzeko, halaber, kontratuak gauzatzeko gutxienez ondoren adierazitako giza bitartekoak bideratzeko konpromisoa hartuko dute lizitatzailleek:

- Lau pertsona, Zuzenbideko lizentziadunaren eta/edo Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziadunaren titulazioa edo horien antzekoa izango dutenak. Esperientzia eduki behar dute sektore publikoko erakundeei lege aholkularitza iraunkorra eta integrala ematen. Honako baldintza hauek bete beharko dira:
 - Pertsona horietako batek Zuzenbideko lizentziadunaren titulazioa edukitzea, sektore publikoko erakundeei lege aholkularitza iraunkorra eta integrala ematen zortzi urtetik gorako esperientzia edukitzea eta sektore publikoko kontratazioan espezializatuta egotea.
 - Pertsona horietako beste batek Zuzenbideko lizentziadunaren titulazioa edukitzea, lege aholkularitza iraunkor eta integralaren esparruan zortzi urtetik gorako esperientzia edukitzea eta laneko zuzenbidean espezializatuta egotea.
 - Pertsona horietako batek Zuzenbideko lizentziadunaren eta/edo Enpresa Administrazio eta Zuzendaritzako lizentziadunaren titulazioa edo horien antzekoa izatea, sektore publikoko erakundeei lege aholkularitza iraunkorra eta integrala ematen zortzi urtetik gorako esperientzia edukitzea eta zuzenbide fiskalean espezializatuta egotea.

Enpresa lizitatzailleak pertsona horietako bat izendatu beharko du kontratuaren arduradun gisa. Pertsona horrek adierazitako funtzioak bete beharko ditu eta arintasunez komunikatzeko gai izan beharko du, bai hitzez, bai idatziz, Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialekin.

Konpromiso hori kontratu betebeharra izango da SPKLTBaren 223 f) artikuluan aurreikusitako ondorioetarako. Hortaz, berori urratuz gero, DONOSTIA KULTURAK kontratua deuseztatzeko eskubidea izango du.

Eskatutako kaudimena eta/edo gutxieneko giza baliabide jakin batzuk atxikitze konpromisoa egiaztatze, beste erakunde batzuen kaudimenean oinarritzeko asmoa duten lizitatzailleek, haiekin edozein motatako lotura juridikoa dutela ere, notario aurrean sinatutako idatzia aurkeztu beharko dute (VI. eranskinean jasotako ereduaren arabera). Horretan, dagokion enpresak honako hau adieraziko du: lizitatzaillea aurkeztu deneko lizitazioaren baldintzen jakitun dela beren hedadura osoan; adierazitako kaudimena duela (horren egiaztagiria aurkeztuko du, **13.**

klausulan jasotako eran); eta, esleipendun suertatuz gero, lizitatzailer horren eskura kontratuak gauzatzeko beharrezko baliabideak jartzeko asmo ezeztatzina duela, Kode Zibilaren 1257.2 artikuluan xedatutakoa berariaz onartuta (Administrazioak berariaz baimendu beharko du hura ordezkatu edo aldatzea). Idatzia aurkezteak berekin ekarriko du DONOSTIA KULTURAK konpromiso hori onartzen duela, baldin eta dagokion lizitatzailer esleipendun suertatzen bada.

12. PUBLIZITATEA

Lizitazio hau DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Kontratuen formalizazioa DONOSTIA KULTURAREN kontratugilearen profilean argitaratuko da.

Ondoko web-orriaren bitartez sartuko da kontratugilearen profilera: <http://www.donostiakultura.com>.

13. PROPOSAMENAK ETA DOKUMENTAZIOA AURKEZTEA

Proposamenak aurkezteko 15 egun naturaleko epea izango da, lizitazio iragarkia argitaratu eta biharamunetik hasita.

Proposamenak aurkezteak berekin dakar lizitatzailerak agiri hau bere osotasunean eta baldintzarik gabe onartzen duela, bai eta gainerako kontratu dokumentazioa ere, inongo salbuespenik gabe.

Agiri hau eta baldintza teknikoaren agiria kontratugilearen profilaren bitartez eskura daitezke, honako webgune honetatik: <http://www.donostiakultura.com>.

Halaber, dokumentazio hori DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan aztertu ahal izango da (Konstituzio plaza, 1, 20003 Donostia), astelehenetik ostiralera, 9:00etatik 14:00etara, azken lizitazio-iragarkia argitaratzen den egunaren biharamunetik aurrera eta proposamenak aurkezteko epearen azken egunera arte.

Lizitazio honetan parte hartzeko, enpresa lizitatzailerak HIRU GUTUN AZAL ITXI aurkeztuko dituzte **eskura** (A, B eta C) DONOSTIA KULTURAREN bulegoetan, erregistro ordutegiaren barruan (astelehenetik ostiralera, 09:00etatik 14:00etara; udan 9:00etatik 13:30era), ezarritako epearen barruan. Gutun azal horietan geroago aipatuko den dokumentazioa sartuko dute, eta guztietan jarriko dute xede den kontratazioa, pertsona fisikoaren nortasuna edo enpresaren izena, proposamenaren sinatzailearen izena eta abizenak eta izaera, telefono zenbakia eta fax zenbakia, eta helbide elektronikoa. Halaber, jakinarazpenak jasotzeko lehenesten den bidea adieraziko da, Orri honen **II. eranskin**eko ereduaren arabera.

Epearen azken eguna larunbata, igandea edo jaieguna bada, hurrengo egun baliodunera arte luzatuko da.

Gutun azal bakoitzak ondoren zerrendatuko diren dokumentuak edukiko ditu, eta bertan dauden dokumentuen zerrenda zenbakitua jasoko du.

A gutun azala.- "KONTRATATZEKO GAITASUNA"

a) Lizitatzaillearen eta, hala badagokio, bere ordezkariaren jarduteko gaitasunaren ziurtagiriak:

1. Lizitatzailleak eta, hala badagokio, haren ordezkariak jarduteko gaitasunaren ziurtagiriak:

- Pertsona juridikoak diren enpresaburuen kasuan, enpresako eskritura edo sorrera agiria, Estatutuak edo sorrera egintza aurkeztu behar dira jarduteko gaitasuna ziurtatzeko (dokumentu horietan zehazten dira jarduera arautzen duten arauak). Dokumentu guztiak dagokien erregistro publikoan behar bezala inskribatuta egongo dira, pertsona juridikoaren motaren arabera dagokionean.

- Europar Batasuneko kide diren estatuetakoen enpresa ez espainolei dagokienez, jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, kasuan kasu Estatuko legeriaren arabera dagokien Erregistroan izena emanda daudela ziurtatu behar da, edo zinpeko aitortpen edo ziurtagiri bat aurkeztu bestela, ezar daitezkeen Europar Erkidegoko xedapenei jarraituz.

- Atzerriko gainerako enpresaburuen jarduteko gaitasuna ziurtatzeko, dagokien estatuan Espainiak duen diplomazia misio iraunkorraren txostena beharko da, edo enpresaren egoitza dagoen lurralde esparruko kontsularen bulegoarena. Txosten horren bitartez justifikatu beharko dute atzerriko enpresaren jatorriko estatuak funtsean modu berdintsuan onartzen duela Espainiako enpresek hango administrazioarekiko eta SPKLTBaren 3. artikuluan adierazitakoen pareko sektore publikoko erakunde, organismo edo entitateekiko kontratazioetan parte hartzea.

- Pertsona fisikoak diren enpresaburuen kasuan, nortasun agiria nazionala edo dagokien estatuko agiri baliokidea aurkeztuko da jarduteko gaitasuna ziurtatzeko.

- Ordezkari gisa aurkeztu diren pertsonak, edo proposamenak beste norbaiten izenean sinatzen dituztenek, nortasun agiri nazionalaren kopia aurkeztuko dute, bai eta horretarako ahalorde askietsia ere. Enpresa pertsona juridikoa bada, Merkataritza Erregistroan inskribatuta egongo da dagokion ahalordea, betiere Merkataritza Erregistroaren Araudiko 94. artikuluan aurreikusitakoak horrela eskatzen badu.

- Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuek elkartearen eratzeko duten izenak eta ezaugarriak, eta bakoitzaren partaidetza adierazi beharko dituzte. Esleipendun suertatuz gero, aldi baterako enpresa elkartearen eratzeko konpromisoa hartzen dutela ere adierazi beharko dute. Aldi baterako elkarte batean bilduta aurkeztu nahi duten enpresaburuek solidarioki behartuta egongo dira, eta elkartearen ordezkari edo ahaladun bakarra izendatu beharko dute. Ordezkari edo ahaladun horrek kontratuaren ondorio diren eskubideak baliatzeko eta betebeharrak betetzeko behar besteko ahalordeak izango ditu kontratua iraungi artean. Dena dela, enpresaburuek ahalorde erkideak ere eman ahal izango dituzte zenbateko handiko kobrantzak eta ordainketak egiteko.

Aurkeztuko diren dokumentu horiek guztiak jatorrizkoak edo behar bezala konpultsatutako kopiak izango dira.

2. SPKLTBaren 60.1 artikuluan kontratuak egiteko ezartzen diren debekuetako batean ere ez dagoela adierazten duen lizitatzaillearen erantzukizunpeko aitorpena, **III. eranskinean** azaltzen den ereduaren arabera.

Aitorpen horretan, indarrean dauden xedapenetan ezartzen diren zerga betebeharretan eta Gizarte Segurantzarekikoetan egunean izatearen berariazko erantzukizunpeko aitorpena barne hartuko da. Eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen lizitatzailleak aipatutako baldintza betetzearen egiaztatgaria aurkeztu beharko du, eta horretarako 5 egun balioduneko epea edukiko du, VICTORIA EUGENIA ANTZOKIAK xede horrekin bidaltzen dion errekerimendua jaso eta hurrengo egunetik hasita.

3. Kaudimen ekonomiko eta finantzarioaren eta tekniko edo profesionalaren egiaztatgiriak, eta giza bitartekoak atxikitze konpromisoa, **11. klausulan** aurreikusitakoaren arabera.

Enpresaburuaren kaudimen tekniko edo profesionala ondoren adierazitako moduan ziurtatuko da:

- Azken hiru urteetan egindako zerbitzu edo lan garrantzitsuenen zerrenda bat, kopuruak, datak eta hartzailea adierazita.
- Enpresak dituen langile teknikoak edo unitate teknikoak zehaztuko dira.
- Enpresaburuaren eta, oro har, enpresako langileen titulazio akademikoak eta profesionalak.

Adierazitako bitartekoei dagokienez, kontratu hauetarako lizitatzailleek kaudimen tekniko edo profesionalari lotuta bete beharreko gutxieneko baldintzak **11. klausulan** adierazitakoak dira.

4. Kontratuak gauzatzeko, gutxienez, **11. klausulan** adierazitako giza bitartekoak erabiltzeko konpromisoa. Kontratueta atxikitako pertsonak zehazki identifikatuko dira, bakoitzaren titulazioa, esperientzia eta beharrezkoa den esperientzia duela ziurtatzen duen curriculum vitae adierazita. Gainera, zein lan egin dituzten eta lanak zein erakundetarako egin diren jasoko duen zerrenda barne hartuko da.

5. Hala badagokio, adierazpenen notario akta aurkeztuko da, lizitatzailleak eskatzen den kaudimena duela edo kontratura gutxieneko giza bitartekoak atxikitze konpromisoa beteko duela ziurtatzeko, **VI. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

6. Berariazko erantzukizunpeko aitorpena, kontratuak gauzatzeko enplegatutako langileek Gipuzkoarako berariaz onartuta dagoen aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialean pareko langileentzat ezarritakoa baino ordainsari txikiagoa jasoko ez dutenaren konpromisoarena (**X. eranskineko** ereduaren arabera beteko da).

7. Atzerriko enpresek berariazko aitorpena aurkeztu beharko dute. Bertan, kontratuen ondorioz zuzenean edo zeharka sor daitekeen gorabehera orotarako, Espainiako edozein mailatako epaitegi eta auzitegien jurisdikzioaren mende jarriko direla eta, hala badagokio, atzerriko jurisdikzio foruari uko egiten diotela adieraziko dute.

8. Jakinarazpenak jasotzeko lehentasunezko bitartekoa aukeratzea, agiri honen **II. eranskineko** ereduaren arabera.

9. Laneko arriskuen prebentzioaren alorreko betebeharrak betetzeari buruzko erantzukizunpeko aitorpena, **V. eranskinaren** arabera.

Oharrak:

- (i) Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratisten Erregistro Ofiziala arautzen duen otsailaren 3ko 12/1998 Dekretuak araututako Kontratisten Erregistro Ofizialean izena emanda dauden lizitatzailleek, bestalde, Erregistroaren ardura duen legelariak luzatutako ziurtagiriaren kopia konpultsatua aurkez dezakete, 1. atalean eskatutako dokumentazioaren ordez.
- (ii) DONOSTIA KULTURAK lizitatzailleek aurkeztutako informazioa egiazkoa dela ziurtatzeko beharrezkotzat jotzen dituen egiaztapen lanak egiteko edo dokumentazioa eskatzeko eskubidea erreserbatuta du.
- (iii) Enpresa atzerritarrek aurkezten duten dokumentazioa gaztelaniara edo euskarara ofizialki itzulita egongo da.

B gutun azala.- "PROPOSAMEN TEKNIKOA"

Lizitatzailleek aurkeztu beharreko proposamen teknikoak honako dokumentazio hau jaso beharko du:

Gutun azal horretan, lizitatzailleek, euren proposamenak baloratzeko, honako hau barne hartuko dute:

- (i) Kontratuko zerbitzugintzaren metodologia bilduko duen memoria; bertan, bereziki adieraziko dira, besteak beste: aholkularitzarako prozedurak, sektore publikoaren esparru honen berezko kontratazioarekin lotuta, eta DONOSTIA KULTURARI dagokion erakunde antolamendurako berariazko kontratazioarekin lotuta ere; aholkularitzaren xede diren gai zehatzetan adituak eta bereziki kualifikatuak diren pertsonen arretarako epeetan berehala esku hartuko dutela (modu presentzialean ere) ziurtatuko duten prozedurak, bitartekoak eta mekanismoak; eta Donostiako Udaleko Idazkaritza Nagusiarekin erabat eta iraunkorki koordinatzea ziurtatuko duten prozedurak eta jardunbidea.

Memoria hori, paperean, DINA4 formatuko 20 orrikoa izango da gehienez, bi aurpegietan idatzita eta 10 eremukoa baino txikiagoa izango ez den letran.

- (ii) Hala badagokio, **11. klausulan** eskatutako gutxieneko taldeaz gainera, kontratuak gauzatzeko atxikiko den talde zehatza adieraziko da, taldekideen curriculum vitae, esperientzia eta dagokion sektorean duten kualifikazioa azalduta. Gainera, kontratuak gauzatzeko atxikiko den bulegoa edo ordezkaritza aditzera emango da (kontratuak gauzatzeko atxikitako langileen lantokia izan beharko duena).

- (iii) Kontratuen xede diren lan zehatzekin lotuta bete beharreko funtzioetara atxikitako giza bitartekoen esleipen eta antolamendu zehatza adieraziko da (atxikitako pertsona zehatzen arduraldiaren - presentziala ere- intentsitatea, prestasuna, etab.).

Gutun azal honen dokumentazioaren jatorrizkoa edo kopia aurkeztu ahal izango da. Hala ere, DONOSTIA KULTURAK, eskaintzak baloratzeko garaian, lizitatzaileri jatorrizkoak eskatu ahal izango dizkie, aurkeztutako informazioaren egiazkotasuna ziurtatzeko.

C gutun azala.- "PROPOSAMEN EKONOMIKOA"

Honako dokumentu hauek edukiko ditu proposamen ekonomikoak:

- **IV. eranskin** gisa txertatzen den eredura egokitutako proposamen ekonomikoa.

DONOSTIA KULTURAK, esleipena egin aurretik edo ondoren, nahiz kontratuen indarraldian, A, B eta C gutun azaletan aurkeztutako dokumentuen egiazkotasuna egiaztatu ahal izango du, baita baldintza teknikoan agirian eskatutakoena ere. Enpresak aurkeztutako datuetan edo egoeretan faltsutasunik aurkitzen bada, kontratua baliogabetzeko arrazoia izan daiteke, kontratistak berari egozteko moduko arrazoen ondorioz kontratua ez betetzeagatik.

Behin kontratua esleitu eta urtebeteko epea amaitzen denean, DONOSTIA KULTURAK lizitatzaileri aurkeztutako dokumentazioa suntsitzea erabaki dezake, baldin eta lizitatzaileri ez badute jaso.

14. BALORAZIO IRIZPIDEAK

Honako hauek dira balorazio irizpideak eta dagokien haztapena:

- **Proposamen teknikoak:** **80 puntu gehienez ere.**
 - o Kontratuko zerbitzugintzaren metodologia. Bereziki baloratuko dira: aholkularitzarako prozedurak, sektore publikoaren esparru honen berezko kontratazioarekin lotuta, eta DONOSTIA KULTURARI dagokion erakunde antolamendurako berariazko kontratazioarekin lotuta ere; aholkularitzaren xede diren gai zehatzetan adituak eta bereziki kualifikatuak diren pertsonen arretarako epeetan berehala esku hartuko dutela (modu presentzialean ere) ziurtatuko duten prozedurak, bitartekoak eta mekanismoak; eta Donostiako Udaleko Idazkaritza Nagusiarekin erabat eta iraunkorki koordinatzea ziurtatuko duten prozedurak eta jardunbidea. 40 puntu gehienez ere.
 - o Kontratua gauzatzeko atxikitako giza taldea. Bereziki baloratuko dira: haren antolamendua eta kontratuen xede diren funtzioetara zehazki atxikitzea (atxikitako pertsona zehatzen arduraldiaren -presentziala ere- intentsitatea, prestasuna, etab.); eta eskatutako gutxienekoekiko giza bitarteko gehigarriak atxikitzea (curriculum vitae, eta esperientzia eta kualifikazioa dagokion sektorean). Era berean, kontratuak gauzatzeko lizitatzaileri atxikitzen duen bulegoaren edo ordezkaritza kokapena baloratuko da (kontratuak gauzatzeko atxikitako langileen lantokia izan beharko du). 40 puntu gehienez ere.

- Proposamen ekonomikoa:

20 puntu gehienez ere.

- o 2 urtetik beherako esperientzia duten profesionalak: 6,5 puntu gehienez ere.
- o 2 urtetik gorako eta 8 urtetik beherako esperientzia duten profesionalak: 6,5 puntu gehienez ere.
- o 8 urtetik gorako esperientzia duten profesionalak: 6,5 puntu gehienez ere.
- o Lotutako eta espezializatutako administrazio eta izapidetze zerbitzuak: 0,5 puntu gehienez ere.

Eskaintza ekonomikoari dagozkion puntuak irizpide automatiko gisa baloratuko dira honako formula hauen bitartez (profesionalen kategoria bakoitzari aplikatuko zaizkio):

-Gehieneko prezioarekiko beherapena % 5 edo txikiagoa bada, ondoko formula aplikatuko da:

$$P = (B/\% 5) * 0,70 \text{ GP}$$

-Gehieneko prezioarekiko beherapena % 5etik gorakoa eta % 10 edo txikiagoa bada, ondoko formula aplikatuko da:

$$P = (B/\% 10) * 0,20 \text{ GP} + 0,70 \text{ GP}$$

-Gehieneko prezioarekiko beherapena % 10etik gorakoa eta % 20 edo txikiagoa bada, ondoko formula aplikatuko da:

$$P = (B/\% 20) * 0,10 \text{ GP} + 0,90 \text{ GP}$$

Non:

P = Baloratzen diren lizitatzailleak lortutako puntuazioa

B = Baloratzen den lizitatzailleak eskainitako gehieneko lizitazio prezioarekin beherapen ehunekoa

GP = Kategoria profesionalari emandako gehieneko puntuazioa

15. EBALUAZIO BATZORDEA

Proposamenak baloratzeko Ebaluazio Batzordea honako kide hauek osatuko dute:

- Donostia Kultura EEPko Kontratazio Arduraduna
- Donostiako Udalaren Aholkularitza Juridikoko Zerbitzuko letradu bat.
- Donostia Kultura EEPko Baliabideen Administrazio eta Kudeaketako arduraduna.

16. PROPOSAMENAK IREKITZEA

Ebaluazio Batzordeak A gutun azaleko ("Kontratatzeko gaitasuna") dokumentazioa kalifikatuko du lehenik eta behin, garaiz eta eraz. Aurkeztutako dokumentazioan konpon daitekeen akatsik edo ez egiterik antzemanaz gero, hiru egun balioduneko

epea eman ahal izango da, gehienez ere, lizitatzailleak akats edo ez egite horiek konpontzeko.

Jarraian, B gutun azala irekiko da, proposamen tekniko biltzen duena, berori aztertu eta baloratzeko.

C gutun azalean jasotako proposamen ekonomikoen irekiera jendaurrean egiaztatuko da eta, xede horrekin, proposamen publikoak irekitzeko egintza publikoaren data, ordua eta lekua jakinaraziko zaizkie onartutako lizitatzaille guztiei, **II. eranskinaren** arabera jakinarazpenak jasotzeko lehentasunez aukeratu duten bitartekoa erabiliz. Kontratugilearen profilean argitaratuko da guztia (www.donostiakultura.com) 48 ordu lehenago gutxienez.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoaren hasieran, proposamen teknikoen balorazioaren emaitzak jakinaraziko zaizkie bertaratu diren lizitatzaillei; betiere, horrela egiteko eskatzen badute.

Proposamen ekonomikoak irekitzeko egintza publikoa amaitzean, proposamenak aztertu eta baloratuko dira.

Ebaluazio Batzordeak baztertu egingo ditu Herri Administrazioen Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra (aurrerantzean, HAKLAO) onartzen duen urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren 84. artikuluan aurreikusitako arrazoietan barne hartuta dauden proposamenak. Halaber, aurkeztutako proposamenen zerrenda bidaliko dio Kontratazio Organoari, behearazko ordenan sailkatuta eta **14. klausulan** ezarritako balorazio irizpideak kontuan hartuta. Era berean, ekonomikoki eskaintza onuragarriena zein den adieraziko du.

Proposamena egin aurretik, esleipenari buruz nahi beste txosten tekniko eskatu ahal izango ditu.

Ebaluazio Batzordearen proposamena txosten juridikoaren pean jarriko da.

Ebaluazio Batzordeak proposamen ekonomiko onuragarriena identifikatzeak ez du inolako eskubiderik sortzen proposatutako lizitatzaillearen alde.

17. KONTRATUAK ESLEITZEA

Kontratazio Organoak jarraian adieraziko den dokumentazioa eskatuko dio eskaintza ekonomiko onuragarriena egin duen lizitatzailleari, eta lizitatzailleak hamar egun balioduneko epea edukiko du aurkezteko, horretarako errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita:

- Zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak egunean izatearen egiaztageria.

Esleipendunak ekonomia jardueren gainerako zerga (EJZ), kontratuaren xede den epigrafean, alta hartu duela egiaztatu beharko du. Horretarako, alta agiria aurkeztu beharko du, uneko ekitaldiari baldin badagokio, edo EJZren azken ordainageria, gainerako kasuetan. Nolanahi ere, zerga horren izen ematean baja hartu ez izana adieraziko duen erantzukizunpeko aitortza gaineratu beharko da.

- Egingako eskaintzan konprometitutako baliabideak prest izatearen egiaztageria.

- Hala badagokio, aldi baterako enpresa elkaratearen lege sorrera ziurtatuko da. Aldi baterako enpresa elkaratearen arduraduna edo ahalordea izendatu beharko da, eta nahikoa ahalorde edukiko du kontratuak iraungi bitartean eskubideak gauzatzeko eta betebeharrak betetzeko.
- Agiri honen **21. klausulan** aurreikusitako behin betiko bermea eratu izanaren egiaztatzea.
- Aseguratzailaren erantzukizun zibileko ziurtagiria, "Erakunde aseguratzailaren ziurtagiria" izeneko **VII. eranskinean** jasotako ereduaren arabera.

Epearen barruan aipatu berri den dokumentazioa aurkezten ez bada, lizitatzailak bere eskaintza atzera bota duela ulertuko da. Horrela bada, dokumentazio bera eskatuko zaio hurrengo lizitatzailari, eskaintzen sailkapenaren hurrenkeran.

Kontratazio Organoak kontratuen esleipena adostuko du, aipatutako dokumentazioa jaso eta hurrengo hamar egun baliodunen barruan eta proposamenak irekitzen diren egunetik gehienez ere bi hilabeteko epean.

Esleipena ebazpen arrazoitu bidez erabakiko du Kontratazio Organoak, eta lizitatzailari jakinaraziko zaie, agiri honen **II. eranskin** gisa gaineratutako erudian adierazitako bitartekoaren arabera. Aldi berean, DONOSTIA KULTURAKO kontratugilearen profilean argitaratuko da.

18. KONTRATUAK HOBETZEA ETA FORMALIZATZEA

Kontratuak formalizatzean hobetuko dira.

Bi kontratu egingo dira, eduki berarekin, DONOSTIA KULTURAREKIN eta VICTORIA EUGENIA ANTZOKIA, SA eta SAN TELMO MUSEOA SA sozietateekin.

Kontratuak dokumentu pribatuan formalizatuko dira 10 egun balioduneko epearen barruan, esleipena jakinarazi eta hurrengo egunetik hasita. Dokumentu hori edozein erregistro publikotara sartzeko baliagarria da.

Esleipendunak, halere, kontratua eskritura publiko bilakatu dadin eskatu ahal izango du; kasu horretan, bere kontura izango dira sortutako gastuak.

Esleipendunari egoztekoak diren kausen ondorioz, adierazitako epearen barruan kontratuak formalizatuko ez balira, DONOSTIA KULTURAK hurrengo lizitatzailari errekerimendua egin ahal izango dio (eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkeraren arabera) agiri honen **17. klausulan** eskatutako dokumentazioa aurkez dezan, eta hamar egun balioduneko epea emango dio horretarako.

19. KONTRATUAK GAUZATZEA

Kontratuak enpresa kontratistaren arriskuz eta menturaz gauzatuko dira.

Kontratuak gauzatzean, zorrotz lotuko zaie klausuletan jasotakoari, agiri honetan eta baldintza teknikoaren agirian adierazitakoari, eta kontratistak aurkeztutako eskaintzari, kontratatutako zerbitzuen izaerari berez dagozkion arau teknikoak beteta, eta DONOSTIA KULTURAK, kontratuen interpretazio teknikoa egin ondoren, enpresa kontratistari ematen dizkion jarraibideen arabera.

Kontratuak DONOSTIA KULTURAK zuzendu, ikuskatu eta kontrolatuta gauzatuko dira. Ondorio horietarako, DONOSTIA KULTURAK kontratu betebeharrak zuzen betetzen direla eta guztiak behar bezala gauzatzen direla kontrolatu, egiaztatu eta gainbegiratu dezake, edozein unetan eta edozein bitarteko baliatuz.

Xede horrekin, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen dituen kanpo laguntzak jaso ahal izango ditu, kontratu betebeharrak behar bezala betetzen direla eta lanak kalitate maila egokiaz egiten direla egiaztatzeko edo ikuskatzeko.

Kontratatutako DONOSTIA KULTURAK zerbitzuekin lotuta eskatzen dizkion datu guztiak aurkeztuko ditu, beharrezkoa den laguntza guztia emango du, kostu gehigarririk gabe, eta, zenbait kasutan, kontratatutako zerbitzuen lan, administrazio edo beste alorretako dokumentazioa emango du.

Kontratatutako ezin izango du oztoporik jarri DONOSTIA KULTURAK egiten dituen ikuskapen eta kontrol lanetan.

Nolanahi ere, kontratatutako lana ondo eta kontratuaren hitzartutako epeen barruan egiteko beharrezkoak diren tresneria eta bitarteko osagarriak jarri beharko ditu, eta bere betebeharrak betetzeko behar dituen langileak kontratatutako beharko ditu. Kasu horretan, lanaren eta segurtasunaren arloan indarrean dauden xedapenak bete beharko ditu bere ardurapeko langileekin.

Esleipendunak zerga esparruko, lan esparruko, Gizarte Segurantzako eta laneko arriskuen prebentzioko indarrean dauden xedapen guztiak bete behar ditu, zerbitzua egiteko enplegatzen dituen langileei dagokienez. Xede horrekin, langileek esparru horretan beharrezkoak dituzten prestakuntza ikastaroak eman beharko ditu.

Esleipendunaren ardura da, halaber, langileek segurtasun, higiene eta laneko osasunaren alorretan indarrean dagoen araudia betetzen dutela eta DONOSTIA KULTURAK funtzionamendu orokorrerako ezar dezakeen araudia betetzen dutela ziurtatzea.

Langile guztiak enpresa kontratatutaren mendekoak dira. Enpresa kontratatutarenak dira bere enpresa izaerari dagozkion eskubideak eta betebeharrak, eta ezin izango zaio DONOSTIA KULTURARI erreklamaziorik egin dagozkion lan harremanengatik edo gainerako betebeharrengatik.

Enpresa kontratatuta izango da arduradun bakarra zerbitzua gauzatzeko ardura duten langileekin –langile propioekin edo noizean behinka azpikontratatzeko direnekin– lotutako edozein ezbehar edo erreklamazioaren aurrean (judiziala edo estrajudiziala). DONOSTIA KULTURAK ez du lan erantzukizunik (laneko segurtasun, higiene eta osasunarekin lotutakorik), ez eta Gizarte Segurantzarekin edo zerga esparruarekin lotutako erantzukizunik ere, enpresa kontratatutak zuzenean edo zeharka hartzen dituen betebeharrak dagokienez. Era berean, enpresa kontratatutak bere gain hartuko ditu zerbitzuak egitean gertatutako ezbeharren ondoriozko erantzukizunak.

Kontratazio honen xede den zerbitzugintzak, zerbitzuen edukia kontuan izanda, eska lezake: (i) kontratatutak datu pertsonalak tratatzea, DONOSTIA KULTURAREN kontura; eta (ii) kontratatutak DONOSTIA KULTURA titular deneko fitxategiei gaineratutako datu pertsonalak eskuratzea. Hori dela eta, kontratatuta, datu horiek tratatzeko arduradun gisa, eta Datu Pertsonalak Babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan (aurrerantz, "DBLO") horretarako jasotakoa betetzeko, bere burua behartzen du

DONOSTIA KULTURArekin datuak eskuratzeko dagokion kontratua sinatzera. DONOSTIA KULTURAK izango da tratamenduaren arduraduna.

Datuak eskuratzeko kontratu horren edukia eta hedadura DBLOaren 12. artikuluan eta DBLOa garatzeko araudia onartzen duen abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuaren 20. artikuluan zehaztutakoak izango dira. Aipatutako kontratua aldi berean sinatu beharko dute aldeek zerbitzugintzako kontratua izenpetzeko unean, eta horri gaineratuko zaio eranskin gisa.

Edonola ere, eta datuak eskuratzeko kontratuan ezartzen dena alde batera utzita, kontratistak konpromisoa hartzen du kontratazio honen xede diren zerbitzuak egiteagatik sortzen diren betebeharrak betetzeko, DBLOan eta berori garatzeko araudian ezarritakoaren arabera.

Ulertu behar da aurretik adierazitako betebeharrak ez diela kalterik egingo kontratistak dituen betebeharrak DBLOan eta berori garatzeko araudian ezarritakoari; tratamenduaren arduradun gisa, bere kabuz eta erabakiz, hark bere jardueren esparruan egin dezakeen datu pertsonalen beste edozein tratamenduren ondorioz. Betebehar horiek zorrotz bete beharko ditu.

20. OINARRIZKO KONTRATU BETEBEHARRAK

Hona kontratistaren funtsezko kontratu betebeharrak:

- Kontratuak beren klausuletan, agiri honetan, baldintza teknikoan agirian eta DONOSTIA KULTURAK kontratistari ematen dizkion jarraibideetan ezarritakora zorrotz lotuta betetzea.
- Kontratuak gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarreni eragin ahal zaizkien kaltegalera guztien kalte-ordainak.
- Eskaintzan hitzemandako bitarteko guztiak kontratura atxikitzea.
- Gizarte Segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloetan indarrean dauden legezko xedapenak betetzea, bai eta kontratu horien ondoriozko lan betebeharrak ere. DONOSTIA KULTURA salbuetsita egongo da ez betetze horren erantzukizunetik.
- Kontratuak gauzatzeko enplegatutako langileek Gipuzkoarako berariaz onartuta dagoen aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialean pareko langileentzat ezarritakoa baino ordainsari txikiagoa jasoko ez dutenaren konpromisoa errespetatzea.
- Kontratistak eta zerbitzua egiten duten pertsonak DONOSTIA KULTURAK laneko segurtasunaren eta osasunaren esparruan ematen dizkien jarraibideak betetzea.
- Langile guztiek behar bezala kontratatuta egon beharko dute, eta alta emanda Gizarte Segurantzaren, kontratistaren kontura soilik; eta ez da inolako harreman juridikorik egongo langile horien eta DONOSTIA KULTURAren artean, ez kontratuen indarraldian, ez inoiz.

Edozein unetan eska dakioke DONOSTIA KULTURAK esleipendunari lan kontratuaren kopia eta/edo Gizarte Segurantzako afiliazioaren kopia.

Langile horiek ez dute lan harremanik ez eta beste mota bateko erlazorik edukiko DONOSTIA KULTURArekin, eta DONOSTIA KULTURA ez da subrogatuko kontratistaren eta bere langileen arteko kontratu harremanetara.

- Greba kasuan, zerbitzuak beteko dira. Zerbitzuak bermatzea ezinezkoa bada, DONOSTIA KULTURAK ahalmena izango luke zerbitzuak egiteko beharrezkoak diren kontratuak sustatzeko; halakoetan, fakturaziotik kenduko da kontratu horiei dagokien zenbatekoa. Grebaldian, egindako zerbitzuei dagokien prezioa baino ez da ordainduko.
- Langileak ordezkatzeari, betetzen duten funtzioa eta denbora edozein dela ere, dagokien lana behar bezalako ardura eta eraginkortasunez egiten ez badute, gaitasun nahikoa ez badute, zerbitzuak egitean ardura nahikoa ez badute edo kontratua ondo garatzeko ekintza kaltegarriak egiten badituzte. DONOSTIA KULTURAK errekerimendua egin eta gehienez ere 24 orduko epean egingo dira ordezkapenak. Langileak ordezkatzeari DONOSTIA KULTURAK ez du erantzukizunik hartzen bere gain, esleipendunak eragindako langileekin dituen harremanei dagokienez.
- Langileak ordezkatzeari gaixotasun, opor, baimen, istripu, eta abarreatatik izaten diren bajak estaltzeko; betiere, kontratatutako zerbitzuak modu eraginkorrean, jarraituan eta uniformearen egingo direla ziurtatuta. DONOSTIA KULTURAK errekerimendua egin eta gehienez ere 24 orduko epean egingo dira ordezkapenak.
- Zerbitzua behar bezala egiteko bidezko lizentzia eta baimen guztiak lortzea.
- Kontratuen xedea gauzatzeko sor daitekeen beste edozein gastu ordaintzea, indarrean dauden xedapenen arabera dagozkion gastu fiskalak, tasak eta zergak barne hartuta.
- DONOSTIA KULTURAKo langileek emandako jarraibideak obeditzea eta kontratuen xede diren zereginak haiekin koordinatuta gauzatzea; betiere, haiek jakinaren gainean jarrita.
- Agiri honen **21. klausularen** arabera, behin betiko bermea eratzea.
- Konfidentzialtasun betebeharra betetzea, agiri honen **24. klausulan** adierazitakoa kontuan hartuta.
- Dagokion gaia dela eta, aplikatzekoa zaion edozein araudi sektorial betetzea.
- Kontratuen indarraldi osoan, agiri honen **25. klausulan** adierazitako aseguru poliza sinatzea eta mantentzea.
- Enpresa kontratistak aplikatzekoak zaizkion indarreko arau guztiak errespetatu beharko ditu. Bereziki, Gizon eta Emakumeen Berdintasunari buruzko otsailaren 18ko 4/2005 Legea, martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonen Arteko Berdintasun Eraginkorrari buruzkoa, eta Donostiako Udalaren 2008-2013 Berdintasunerako II. Plana. Halaber, jarduera guztiak Euskararen Erabilera Normalizatzeko 10/1982 Oinarrizko Legearen esparruan garatuko ditu, bai eta DONOSTIA KULTURAREN Euskararen Erabileraren Normalkuntza Planaren arabera ere.

SPKLTBaren 223.f) artikuluan jasotakoaren ondorioetarako, klausula honetan jasotako betebeharrak funtsezko kontratu betebeharrak izango dira -bereziki, kontratuak gauzatzeko enplegatutako langileek Gipuzkoarako berariaz onartuta dagoen aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialean pareko langileentzat bosgarren marratxoan ezarritakoa baino ordainsari txikiagoa jasoko ez dutenaren konpromisoa-. Beraz, horiek ez betetzea kontratua deuseztatzeko arrazoi izango da, DONOSTIA KULTURAK hala erabakitzen badu.

21. BERMEAK

Behin-behineko bermea: Ez da eskatzen.

Behin betiko bermea: Kontratuen esleipendunak, kontratuak beteko direla ziurtatzeko, behartuta egongo da kontratuen balio zenbatetsiaren % 5eko behin betiko bermea ezartzera (BEZa kanpo).

Eskaintza ekonomiko onuragarriena aurkezten duen lizitatzailleak hamar egun baliodun edukiko ditu aipatutako bermea eratzeko, DONOSTIA KULTURAREN errekerimendua jaso eta biharamunetik hasita.

SPKLTBaren 96. artikuluan ezarritako edozein modutan era daiteke bermea.

Abal moduan eratuz gero, agiri honi **I. eranskin** gisa gehitu zaion ereduaren arabera izango da.

Eskudirutan egiten bada, DONOSTIA KULTURAREN 2101 0381 0300 1001 7077 Kutzako kontu korrontean egingo da.

Bermea SPKLTBaren 102. artikuluan xedatutakoaren arabera itzuliko da, behin berme epea igaro ondoren eta kontratistak kontratuko betebeharrak guztiak bete dituenean.

Bermea DONOSTIA KULTURAREN aldeko txostenaren ondoren itzuliko da.

Bermearen gainean esleipendunari eska dakizkiokeen zigorrak edo kalte-ordainak gauzatzeko badira, esleipendunak bermea berrezarri edo handitu beharko du dagokion zenbatekoan. Haiek gauzatu eta 15 egun balioduneko epea izango du horretarako. Hala egin ezean, kontratuak deuseztatzeko arrazoia izango da.

Kontratuen aldaketaren baten ondorioz haien prezioa aldatzen bada, bermea berregokitu egin beharko da, aldatutako prezio berriarekin beharrezko proportzioa gorde dezan. Enpresaburuak 15 egun balioduneko epea izango du bermea berregokitzeko, aldatzeko erabakia jakinarazten diotenetik hasita.

Agiri honetan aurreikusi gabeko guztian, SPKLTBaren 95. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa izango da aplikatzeko.

22. ZIGORRAK

Berari egotz dakizkiokeen arrazoiak medio, kontratatutako zerbitzuen gauzatze akastuna egiten badu edo kontratuko beste edozein baldintza betetzen ez badu, DONOSTIA KULTURAK kontratuak deuseztatzea erabaki dezake, agiri honetako **32. klausulan** adierazitako baldintzen arabera, edota kontratuak gauzatzen jarraitzea erabaki dezake. Azken kasu horretan, DONOSTIA KULTURAREN alde, kontratuen balio zenbatetsiaren % 10eko kopurua sortuko da modu metagarrian, bidezkoak diren kalte-galeren ondoriozko edozein ordainez gainera.

Kontratuak gauzatzen jarraitzea erabakitzen bada, eta ez betetzeak iraun bitartean, DONOSTIA KULTURAK edozein unetan deusezta ditzake kontratuak, lehen adierazitako ondorioekin.

Zigorak ordaintzeko, enpresa kontratistari ordainketa osoa edo zatikoa egiteko ordaindu beharreko kopuruak kenduko zaizkio, edo behin betiko bermetik kenduko zaizkio, aurreko kasuan adierazitakoa egitea ezinezkoa denean. Kasu horretan, dagokion erreklamazioa jarriko da eratutako bermea gainditzen duen kopuruagatik.

Nolanahi ere, kontratuak deuseztatzea nahiz horiekin jarraitzea erabakitzen dela ere, DONOSTIA KULTURAK egokitzen jotzen duen denboraz hirugarrenen bitartez zerbitzua eskaintzen jarraitzeko erabaki dezake bere kabuz. Kasu horretan, kontratistak ordainduko du jarraipen horren kostua, kalte-galeren ondoriozko ordainei eta klausula honetan aurreikusitako ondorioei kalterik egin gabe.

23. KONTRATUEN ARDURADUNA

Kontratazio Organoak dagozkion kontratuen arduraduna izenda dezake. Arduradun horren lana izango da kontratuen gauzatzea gainbegiratzea eta hitzartutako zerbitzua behar bezala egiten dela ziurtatzeko jarraibideak ematea eta gauzatzea, Kontratazio Organoak esleitzen dizkion eskumenen barruan.

Kontratuen arduraduna pertsona fisikoa edo juridikoa izan daiteke, DONOSTIA KULTURARI lotutakoa edo kanpokoa.

Kontratistak nahitaez beteko ditu kontratuen arduradunak ematen dituen jarraibideak.

24. KONFIDENTZIALITASUNA

Esleipenaren publizitateari eta lizitatzailerei eman beharreko informazioari dagokienez agiri honetan xedatzen denaren kalterik gabe, DONOSTIA KULTURAK ezin izango du zabaldu enpresaburuek konfidentzialtzat izendatutako informazioa; zehazki, sekretu tekniko edo komertzialekin zerikusirik duenean.

Kontratistak, berriz, kontratuak gauzatzean eskuratzen duen informazioaren konfidentzialtasuna gordeko du, agirietan izaera hori ematen bazaio edo berez konfidentzialtzat tratatu behar bada.

Zehazkiago, konfidentzialtzat joko dira eta ezingo dira argitaratu edo hedatu kontratuak gauzatzean kontratistari ematen zaizkion informazioak, dokumentuak, fitxategiak eta zehaztapenak, edozein euskarritan.

Konfidentzialtasun betebeharrak horri etengabe eutsiko zaio informazio hori ezagutzen den unetik.

25. ASEGURUA

Erantzukizun zibil profesionaleko aseguru bat duela ziurtatuko du esleipendunak, 7,5 milioi euroko gutxieneko kopuruagatik, kontratuaren indarraldi osorako. Asegurua bere kontura eta kargura da.

26. KONTRATUAK LAGATZEA

Kontratutik ondorioztatzen diren eskubide eta betebeharrak hirugarren bati laga ahal izango zaizkio, baldin eta DONOSTIA KULTURAK aurretiazko baimena ematen badu, berariaz eta idatziz. Edonola ere, lagapen hartzaileak lege betebeharrak eta agiri honetan DONOSTIA KULTURArekin kontratuak egiteko eskatutako betebeharrak bete beharko ditu, eta ez du kontratatzeke debekurik izango. Gainera, bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko ditu, agiri honetan jasotakoaren arabera, eta bere eskaintzen adierazitako bitartekoak atxikitzeke betebeharra betetzeko konpromisoa hartu beharko du. Hori guztia lagapenaren xede diren eskubide edo betebeharrei dagokienez.

27. AZPIKONTRATAZIOA

Kontratuen zerbitzugintza azpikontratatu ahal izango da, baldin eta DONOSTIA KULTURAK aurretiazko baimena ematen badu, berariaz eta idatziz. Gainera, azpikontratatzaileak lege betebeharrak eta agiri honetan DONOSTIA KULTURArekin kontratuak egiteko eskatutako betebeharrak bete beharko ditu, bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta teknikoa edo profesionala egiaztatu beharko ditu, ez du kontratatzeke debekurik izango eta agiri honetan jasotako baliabideak atxikitzeke betebeharra betetzeko konpromisoa hartu beharko du. Hori guztia azpikontratatu zerbitzugintzari dagokionez.

Kontratatzen eta DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAREN artean sinatutako kontratuari dagokionez, azpikontratatzeari badago, SPKLTBaren 227. artikuluan xedatutakoari jarraituko zaio eta, edonola ere, DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOAK berariaz eta idatziz eman beharko du kontratuaren xede diren prestazioak azpikontratatzeko baimena. Gainera, azpikontratatzaileak bete egin beharko ditu lege betebeharrak eta DONOSTIA KULTURA ENPRESA ERAKUNDE PUBLIKOArekin kontratatzeke agiri honetan eskatutako betebeharrak, bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, edo teknikoa eta profesionala egiaztatu beharko ditu, ez du kontratatzeke debekurik izango eta agiri honetan aurreikusitako bitartekoak kontratura atxikitzeke konpromisoa hartu behar badu. Hori guztia azpikontratatu beharreko zerbitzugintzari dagokionez.

28. KONTRATUAK ALDATZEA

Kontratazio Organoak kontratuak aldatu ahal izango ditu, SPKLTBaren 107. artikuluan aurreikusitako kasuetan.

29. KONTRATUGILEAREN ERANTZUKIZUNA

Kontratistak izango du egiten dituen lanen eta eskaintzen dituen zerbitzuen kalitate teknikoaren erantzukizuna, baita kontratua gauzatzean egiten dituen ez egiteek, akatsek, metodo desegokiek edo okerreko ondorioek VICTORIA EUGENIA ANTZOKIARI edo hirugarren batzuei eragin diezazkiekeen ondorioena ere.

Kontratistak ordaindu beharko ditu kontratua gauzatzeko eragiketen ondorioz hirugarrenei eragin ahal zaizkien edo langileek (enpresa esleipendunaren langile propioek edo azpikontratatuak) jasaten dituzten kalte-galera guztiak.

30. KONTRATUAK ETETEA

DONOSTIA KULTURAK erabakiko balu kontratuak etetea edota SPKLTBaren 220. artikuluko 5. atalean xedatutakoa (ondorio horietarako berariaz ezarri beharrekotzat hartzen da) aplikatuz kontratuak etengo balira, akta idatziko da. Horretan, kontratuak eteteko arrazoiak eta horien gauzatzean izandako egitatezko egoera azalduko dira.

Etetea erabakita, DONOSTIA KULTURAK kontratistari benetan izandako kalte-galerak ordainduko dizkio.

31. KONTRATUAK JASOTZEA ETA BERME EPEA

Kontratua guztiz beteko du enpresa kontratistak zerbitzugintza osorik egin duenean; betiere, kontratuan adierazitako baldintzetan eta DONOSTIA KULTURAREN adostasunarekin.

DONOSTIA KULTURAK erabakiko du enpresa kontratugileak egindako prestazioak kontratua betetzeko ezarritako preskripzioekin bat ote datozen eta, hala badagokio, kontratatutako prestazioak eskaintzeko eta prestazioak jasotzean antzemandako akatsak zuzentzeko eskatuko dio.

Enpresa kontratistari egotz dakizkikeen akatsen ondorioz, lanak kontratatutako prestazioarekin bat ez badatoz, DONOSTIA KULTURAK horiek bazter ditzake eta ez du ordainketarik egin beharko edo, hala badagokio, ordaindutako prezioa berreskuratzeko eskubidea edukiko du.

Obren harrera egiten denetik urtebetekoa izango da bermearen epea.

Bermealdian egindako lanetan akatsak daudela ziurtatzen bada, Kontratazio Organoak eskubidea edukiko du kontratistari akats horiek konpon ditzan erreklamatzeko.

Bermealdia amaitzean DONOSTIA KULTURAK ez badu aurreko ataletan adierazitako eragozpen edo salaketarik jarri, kontratistak ez du erantzukizunik edukiko egindako prestazioen gainean.

32. KONTRATUAK DEUSEZTATZEA

Kontratuak deuseztatzeko kausa izango dira SPKLTBaren 223. artikuluko a) -85. artikuluan xedatutakoaren kaltetan izan gabe-, b), c), d), f), g) eta h) letretan jasotakoak eta, oro har, kontratuzko betebeharrak ez betetzea, Kode Zibilaren 1.124. artikuluan aurreikusitakoaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako edozein deuseztatze-kasutan, deuseztatzea automatikoki gauzatuko da, DONOSTIA KULTURAK hartu duen erabakia kontratistari fede emanaz jakinarazteko eskakizun bakarraz.

Jakinarazpena jaso eta gero, kontratistak DONOSTIA KULTURAREN esku utzi behar ditu kontratatu diren zerbitzuak egiteko ordura arte landu dituen dokumentu guztiak, eta kontratuak direla-eta sortutako gainerako dokumentazioa edo informazioa, DONOSTIA KULTURAK erabilitako eta kontratistari emandako agiriekin batera. Aipatutako dokumentazio guztia DONOSTIA KULTURARENA izango da aurrerantzean.

Horrez gain, dagozkion kontratuen likidazio ekonomikoa egingo da ondoren, jarraian xedatzen denaren arabera.

Klausula honetan aurreikusitako arrazoiengatik edo legez egokiak diren beste edozein arrazoiengatik kontratuak deuseztatzearen ondorioz sor litezkeen erantzukizun ekonomikoak likidatu egingo dira kontratuak eraginkortasunez deuseztatu eta dagokion dokumentazioa entregatu ondoren. Horrek ez du eragotziko, ordea, DONOSTIA KULTURAK hura gauzatzen jarraitu ahal izatea.

Deuseztatze-kasuan, benetan egindako lanen prezioa jasotzeko eskubidea edukiko du kontratistak, hasiera batean.

Enpresa kontratugileari egotzi ahal zaizkion arrazoiengatik deuseztatzen badira kontratuak, kontratuen guztizko balio zenbatetsiaren % 20ko kopurua sortuko da DONOSTIA KULTURAREN alde, modu metagarrian, bidezkoak diren kalte-galeren ondoriozko edozein ordainez gainera.

Bi kopuru horiek behin betiko bermetik eta ordainketa oso edo zatiko gisa kontratistari ordaindu beharreko kopuruetatik kenduko dira, eta, hori ezinezkoa bada, bidezko erreklamazioa aurkeztuko da.

Donostian, 2013ko urriaren 23an

Amaia Almirall
Zuzendari kudeatzailea